

JULIAN ALUSTIZA «AZTIRI».—*Euskal baserriaren inguruan.*
Arantzazu Frantziskotar Argitaletxea. Oñati, 1985.

Euskal Herriko nekazari kulturaz inoiz egin den liburu-rik ederrena dela esatea, behar bada ez da aski esatea. Etnografiako lan bikaina da, haurtzaroan bizitutako oroitzape-nez eta ikasiaren bilketa lanez hornitua.

Holako lanak euskaraz erderaz baino hobe direla esan beharrik ere ez legoke, zoritxarrez gehienak erdaraz egin badira ere. Egilea, kondairaz, kantaz eta esaldiz ere ondo baliatzen delarik, bildutakoa bera hizkuntza jatorrez emateaz gainera adierazpena ere halakoa bait da.

Bilketetan bertan bi bide erabili ditu, berberak zuzenean jasotzearena eta bibliografiar baliatzearena. Honetan, ez da go zalantzarik, orainarteko lanik garrantzitsuenak erabili ditu, bakoitzean aburuak behar bezala hautatuz.

Lehenago *Lihoaren penak eta nekeak* (1981) hain ondo taxaturik eman zigunagandik, norbaitzuk ez zuten gutiago espero. Hala ere, nik banuen beldur pixka bat; lehena, monografia mugatua izateaz, lan argi eta garbia eskaini zigun, hortarako hobeto prestatzen zelako; baina baserriko bizitza orokorki hartzeaz lan ugaritsu eta barreiatuak eskuratu eta sintesia emateaz ez ote zuen behar bezala burutuko. Baina, neketsuagoa izanarren, ez dio zorrik. Bikain atara da «Aztiri» saio honetan, bai bilketaz eta baita bildua era egokian aurkezteaz. Eta, zer esanik ere ez, bere euskara samur eta aberatsak edonorentzat irakurgai egokia egiten duela.

Kalekumeok baserria aski azaletik ezagutu dugu, eta liburu honek erakusten digu bertako bizitzaren muina.

Iturri askotako urak karreiatu ditu lan hori burutzeko. Sustrai jatorrak hartu ditu. Bera baserrian sortzez eta bizitzez, bestek ez haina jakin du gai horretaz egin diren lanak ehotzen, beste askorentzat ihesik joango ziren gauzak xehe-tasunez ematen ditu.

Liburuaren edukinez, lehen zatian, koba zuloetan ehizari izango zenagandik hasi, etxola edo saletxeetan artzai ibili zenetik baserrian nekazari kokatu arteko adierazpena dakar. Bigarrenean sukalde inguruko gora-beherak, ohitura, mitologia, janari, lanabes,... bere inguru guziaz hartzen duela, oiha-nak eta txoriak, haize eta kuarta-tenporen garrantzia eta misterioa,... Haize moten adierazpena ez da edonolakoa, eta ur-tearoak esaera zaharretan biltzean bada herri literaturako eta herri filosofiako gauza bitxirik ere. Erlijioa bera ere aintzina nako sineskeretatik kristautasunera arte, honek berakin eskaintzen duen inguru guziaz hartuaz.

Libururako baliatu den bibliografia oharrez bukatzen du, «Aipamenak» deituz. Baina, sail horren aurreko orrian ematen du azken solas laburtxo bat Xalbadorren bertso honekin bukatzeko:

*Anai-arrebak, entzun ene aho-hotsa:
izate bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakotxa,
izate horrendako segurra hil hotza.*

* * *

ANTONIO ZAVALA.—*Esaera zaarren bilduma berria*. (I eta II tomo). Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1985.

Gai aproposa bildu digu oraingoan Antton Zavalak Auspoa sailerako 184 eta 185. zenbakiak osatzera datoztenak burutzeaz. Bi aletan datoz, guztira 3.133 esaera zahar, entzun eta irakurrietatik hautatuak. Zahar hitza, zuhur hitza.